SINOPSIA (laburra)

Bere lanaren errutinan harrapatuta, jolasteko plazerra ahaztu duen aita lanpetu baten istorioa. Aitak, galdutako inozentziara bidaia hasiko du. Kartoi zati bakoitza, sinplea den hori aparteko bihurtzeko eta une bakoitza abentura bihurtzeko gonbidapena da. Aitarik gabe jolasten duen ume bat ikusteak, tristura eta damua eragiten ditu, berreskuraezina den denborarengatik.

“Pertsona handi guztiak umeak izan dira lehen. Baina gutxik gogoratzen dute”

Printze Txikia

SINOPSIA (luzea)

“Hodei guztien gainetik” antzezlanak bere lanaren errutinan harrapatuta, jolasteko plazerra ahaztu duen aita lanpetu baten istorioa kontatzen du. Egun batean, zorabio bat jasan ondoren, harrituta esnatzen da kaleko aingeru bat bizi den kartoizko hodeien artean. Pertsonaia magiko horrekin ezarritako harremanaren bidez, aitak galdutako inozentziara bidaia hasiko du. Kartoi zati bakoitza, sinplea den hori aparteko bihurtzeko eta une bakoitza abentura bihurtzeko gonbidapena da. Animalien granja bat duen kartoizko kaxa bat, bainatzeko eta urpean aritzekohodei bat. Beste bat, espazio-ibilaldi baterako zaldi-gurdi bihurtua... Kartoizko zeru horretatik, urrutitik begiratzen diete munduko gudu itsu eta ergelei. Baita aitarik gabe jolasten den ume bati ere, eta horrek tristura eta damua eragiten ditu, berreskuraezina den denborarengatik.

*“Pertsona handi guztiak umeak izan dira lehen. Baina gutxik gogoratzen dute “*

***Printze txikia***